

EPEZ XIX PROGRAMA

LAGUNTZA EKONOMIKOAK

EPEZ XIX deialdia Erasmus+ 2024 programaren barne dago, eta beraz honako laguntza hauek eskaintzen dizkio parte-hartzaileari:

BIDAI GASTUETARAKO LAGUNTZA ETA MANTENURAKO LAGUNTZA

Deialdi honetako dirulaguntzak kalkulatu dira kontuan harturik SEPIEk adierazitako finantzaketa arauak. Deialdiaren baldintzen eta hautaketa-ebazpenetan argitaratutako artean kontraesanak badaude, deialdikoak gailenduko dira.

Egonaldia egingo duten langileek Europako dirulaguntza bat jasoko dute bidaia gastuetarako eta egonaldiko mantenu gastuetarako. Laguntza bi kontzeptutan banatzen da:

- 1) **Bidaia gastuetarako laguntza** diru kopuru jakin bat da, eta lantokiaren eta dagokion jarduera egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera kalkulatu da, EACEAk horretarako sortutako tresna informatikoaren bidez: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator>

Bidaiaren distantzia	Kopurua (parte hartzaileko)	Bidaia ekologikoa*
10-99 km	28€	56€
100-499 km	211€	285€
500-1.999 km	309€	417€
2.000-2.999 km	395€	535€
3.000-3.999 km	580€	785€
4.000-5.000 km	1188€	-
8.000 km edo gehiago	1735 €	-

* Bidaia ekologikoa da ibilbidearen zati nagusian emisio txikiko garraiobideak erabiltzen dituen, hala nola autobusean, trenbidean edo automobil partekatuan.

- 2) **Mantenu gastuetarako laguntza** EBk ematen duen laguntza indibiduala da, helmuga herrialdearen eta egonaldiaren iraupenaren arabera

Helmuga herrialdeak	Taldea	Laguntza kopuruak hileko
Alemania, Austria, Belgica, Dinamarca, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Islandia, Italia, Liechtenstein, Luxemburgo, Noruega, Países Bajos, Suecia.	1. Taldea	500€
Txekia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Grezia, Letonia, Malta, Portugal.	2. Taldea	450€
Bulgaria, Kroazia, Hungaria, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia, Turkia.	3. Taldea	400€

Horrez gain, Erasmus+ programak aukera ematen du jarduerak hasi baino lehenagoko joaneko bidaia egun bat eta ondorengo itzulerako bidaia egun bat finantzatzeko, betiere agiri bidezko frogak aurkezten badira. Bidaia-datak (joan-etorria) bat badatoz jarduera-datekin (hasiera eta/edo amaiera), aukera hori ez da kontuan hartuko. Bidaiak bidaia ekologikorako laguntzaren baldintzak betetzen baditu, Erasmus+ programak jardueren aurretik eta/edo ondoren 6 egun arte (gehienez) finantzatzeko aukera ematen du.

"AUKERA GUTXIAGOKO" KOLEKTIBOETAKO IKASLEENTZAKO LAGUNTZA GEHIGARRIA

Gizarteratzeko eta aniztasunerako estrategia berriaren barruan, SEPIEk aukera ematen die unibertsitateei **250 € hileko laguntza gehigarria** emateko iraupen luzeko Erasmus+ mugikortasuna egiten duten "aukera gutxiagoko" kolektiboetako ikasleentzat. Deialdi honen esparruan, honako ikasle-kolektibo hauek hartzen dira halakotzat:

- a) Estatuko Administrazio Orokorraren **izaera orokorreko ikasketa-beka** baten onuradun, izatea, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea, edo unibertsitate mailako ikasleak eskolatzeko beka baten onuradun izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emana.
- b) **Errefuxiatua** izatea edo **babes subsidiariorako** eskubidea izatea, edo Espainian **nazioarteko babeserako** eskaera aurkeztu izana.
- c) Legez aitortua eta kalifikatua izatea %33ko edo gehiagoko desgaitasuna.
- d) Familia ugaria kategoria berezian
- e) Terrorismoaren biktimak eta senideak
- f) Genero-indarkeriaren biktimak
- g) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak
- h) Hiperaktibitatearekiko arreta-gabeziagatik nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGHA/AGH)

Laguntza hau jaso ahal izateko, egoera horietako batean dauden ikasleek izena emateko unean adierazi beharko dute, eta hori justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa erantsi beharko dute.